



**ERABAKIA, ORDIZIA KIROL ELKARTEA-SASKIBALOIA KLUBAK EUSKAL  
SASKIBALOI FEDERAZIOKO APELAZIO-BATZORDEAREN  
EBAZPENAREN AURKA JARRITAKO ERREKURTSOA EZESTEN DUENA**

---

**Esp. zk: 14/2015**

**AURREKARIAK**

**LEHENA.-** 2015eko martxoaren 13an, Ordizia Kirol Elkarte-Saskibaloia klubaren idazki bat aurkeztu zen Euskadiko Saskibaloia Federazioan, Kirol Justiziako Euskal Batzorde honi zuzenduta, errekurtsoa jartzen zuena aipatu federazioko Apelazio Batzordeak 2015eko otsailaren 19an hartutako 5 zenbakiko erabakiaren aurka. Erabaki horrek onartu egin zuen Getxo Saskibaloia Taldea klubak Lehiaketa Batzordearen ebazpen baten aurka (50 zenbakiko erabakia, 2015eko otsailaren 4ko ebazpena, zehazki) jarritako apelazio-errekurtsoa. Ebazpenean, Getxo Saskibaloia Taldea zigortzen zen, saskibaloia partida batean ez agertzeagatik, eta zigorra hauxe izan zen, Diziplina Araubideko Erregelamenduaren 20. eta 42.A artikuluetan 30. eta 31. artikuluen gainean aurreikusitakoa beteta: partida 20-0 galtzea, puntu bat galtzea eta 600,01 euroko isuna.

**BIGARRENA.-** Kirol Justiziako Euskal Batzordeak errekurtsoko hau izapidetzea onartu zuen, bai eta Euskadiko Saskibaloia Federazioari espediente eskatzea ere, eta espediente hori Apelazio Batzordeak 2015eko martxoaren 30ean emandako txosten batekin batera igorri da, betiere eztabaidatutako kontuei dagokienez.

**HIRUGARRENA.-** Era berean, Ordizia Kirol Elkarte-Saskibaloia klubak jarritako errekurtsoko Getxo Saskibaloia Taldea klubari helarazi zitzaion, egokitzen



jotako alegazioak egin zitzan, eta 2015eko martxoaren 31n alegazio-idazki bat aurkeztuta gauzatu da izapide hori .

### **ZUZENBIDEKO OINARRIAK**

**LEHENA.-** Honako oinarri hauek ditu Kirol Justiziako Euskal Batzorde honen esku-hartzeak: Euskal Autonomia Erkidegoko kirolari buruzko ekainaren 11ko 14/1998 Legearen 138.a) artikuluan lege bereko 106.2 artikulua gainean xedatutakoa, eta batzorde hori arautzen duen urriaren 18ko 310/2005 Dekretuaren 3.a) artikuluan xedatutakoa.

**BIGARRENA.-** Prozedura honetan interesa duten bi klubek egindako alegazioak aztertzeko, hartan emandako ebazpenen oinarrian dauden egitateak azalduko ditugu.

a) 2015eko urtarrilaren 31n, 18:00etan, gizonezkoen lehen mailako saskibaloipartida bat jokatzeko aurreikusita zegoen Biok Zerbitzuak Ordizia Kirol Elkarte-Saskibaloia (Ordizia kluba hemendik aurrera) eta Getxo Saskibaloia Taldea (Getxo kluba aurrerantzean) taldeen artean.

b) Getxo taldea ez zen joan partida hori jokatzera, arbitroaren aktan esaten den bezala, eta Euskadiko Saskibaloia Federazioko Lehiaketa Batzordeak 50 zenbakiko erabakia hartu zuen 2015eko otsailaren 4an. Hartan, zigor hau jarri zitzaion Getxo klubari, saskibaloipartida hartan ez agertzeagatik: partida 20-0 galtzea, puntu bat galtzea eta 600,01 euroko isuna ordaintzea; hori guztia Diziplina Araubideko Erregelamenduaren 20. eta 42.A artikuluetan 30. eta 31. artikuluetan xedatutakoaz den bezainbatean aurreikusitakoaren arabera. Ebazpen horretan esaten denez, apelazio-errekurtsoa jar daiteke, jakinarazpena egin eta 4 egun balioduneko epearen barruan.



c) Getxo taldeak errekurtsua jarri zuen aipatu ebazpen horren kontra Apelazio Batzardean (2015eko otsailaren 11ko datarekin), eta hura baliogabetzeko eskatu zuen, prozeduran akats bat zegoelako (entzuna izateko izapiderako aukera eman ez izana), eta partidua jokatzeraz joateko arrazoiekin zerikusia zuten funtsezko kontuak zeudelako. Alde horretatik, esan zuen Bizkaian eta Gipuzkoan ezarritako alerta meteorologikoagatik ez zela joan partidara, Eusko Jaurlaritzak eta toki-administrazioek gomendatutakoa kontuan hartuta hartu zutela erabaki hori, erregelamenduak jasotzen zuen ezinbesteko kasu bat zegoelako.

d) Getxo klubak egindako alegazioak ikusita, Apelazio Batzardeak 5 zenbakiko erabakia eman zuen 2015eko otsailaren 19an, eta, hartan, errekurtsua onartu eta Lehiaketa Batzardearen erabakia baliogabetu egin zuen. Eta hori, uste duelako, Erregelamendu Orokorren 179. artikularen arabera, badagoela Getxo kluba partidua jokatzeraz joan ez izana behar bezala justifikatzen duen arrazoi bat.

e) Ordizia klubak, ez baitzeturten bat erabaki horren arrazoiekin eta Apelazio Batzardearen erabakiarekin, bidezko errekurtsua jarri zuen erabakiaren aurka, Kirol Justiziako Euskal Batzarde honetan; errekurtsua 2015eko martxoaren 13an aurkeztu zen Euskadiko Saskibalo Federazioan.

f) Era berean, esan behar da Lehiaketa Batzardeak jokatu ez zen partida hura 2015eko apirilaren 15ean jokatzea erabaki duela, eta Getxo klubaren kontura izango direla partidak eragindako gastu guztiak.

**HIRUGARRENA.-** Gai honi lotutako egitateak eta aurrekariak labur azaldu ondoren, errekurtsogile den aldeak, Ordizia klubak, errekurritutakoaren deuseztasuna aldezteko egindako alegazioak aztertuko ditugu orain.



Lehenik eta behin, Ordizia Klubak dio Getxo klubak Apelazio Batzordean jarritako errekurtsua epez kanpo zegoela eta hark ez zuela onartu behar. Ondorio hori oinarritzeko, esaten du Federazioak Getxo klubari emandako erantzuna 2015eko otsailaren 6an gertatu zela, 18:32an, eta une horretan abiatu behar zuela entzunaldi-izapidea formalizatzeko emandako 48 orduko epeak.

Alegazio hori ezin da aintzat hartu. Izan ere, Lehiaketa Batzordearen erabakia 2015eko otsailaren 5ean bidali zitzaion Getxo klubari Bizkaiko Saskibaloiko Federazioaren bitartez, eta Getxo klubak, 2015eko otsailaren 6an, Lehiaketa Batzordearen erabakiari buruzko dokumentazioa eskatu zuen, ebazpena jakinarazi arte ezin izan baitzuen eskuratu espedienteak.

Getxo klubak eskatutako dokumentazioa 2015eko otsailaren 6an bertan (18:32an) igorri zion federazioak, eta errekurtsua 2015eko otsailaren 11n jarri zen.

“Dies a quo” delakoa (errekurrizteko epea kontatzen hasten den unea) 2015eko otsailaren 7an finkatu behar da, eskatutako dokumentazioa (jakinarazten zitzaion erabakiari buruzko dokumentazioa, ordura arte izan ez zuena, ez zitzaizolako entzunaldi-izapiderik eman) errekurtsua egin duen klubari igorri eta hurrengo egunean. Beraz, epea lau egun balioduneko bada une horretatik aurrera, epea otsailaren 11n amaitu zen, hau da, errekurtsua aurkeztu zen egunean; horregatik, hura ez da garaiz kanpokoak.

**LAUGARRENA.-** Bigarrenik, klub errekurtsogileak dio ez dagoela partidaren egunean ez agertzeko behar den justifikaziorik.

Hori da errekurtsu honetan ebatzi behar dugun funtsezko kontua: ea dagoen ala ez Getxo kluba partida jokatzera ez joatea justifikatzeko arrazoirik.



Alde horretatik, Getxo klubak honako hau argudiatu zuen errekurtsioa Apelazio Batzordean egin zuenean: a) Euskalmet-en pronostikoaren arabera, hilaren 31n, larunbatarekin, elur-kota 600 metrora egongo zen eguneko erdiko orduetan, eta 300-400 metrora jaitsiko zen arratsaldean, eta, noizean behin, 100-200 metrora ekaitz-inguruetan. Era berean, alerta laranja zegoen etengabeko euriagatik Bizkaian eta Gipuzkoan, 00:00etatik 12:00etara arte, eta elurragatiko alerta laranja barrualdean, 12:00etatik 24:00etara arte; b) Euskadiko Saskibalo Federazioaren web-orrian hau adierazten zen: “bertan behera utzi dira Euskadiko selekzioek asteburu honetan egin beharreko entrenamenduak”; entrenamenduok Eibarren egin behar ziren, eta argi adierazten zen asteburu horretarako iragarritako eguraldiagatik hartu zela neurri hori ; c) Ordiziako Udalak berak abian jarria zuen alerta laranjako protokoloa 2015eko urtarrilaren 31rako, uholde-arriskuagatik; d) Getxo klubak ahaleginak egin zituen Ordizia klubarekin hitz egiteko, federazioaren orrian agertzen ziren telefono-zenbakiak erabiliz, baina ez zuen lortu; e) Getxo kluba harremanetan jarri zen arbitraje-arduradunarekin, adierazteko ez zutela errepide-bidaia egin behar, zuhurren horixe zela iritzita; eta f) Horren jakinarazpena helarazi zitzaion Bizkaiko Saskibalo Federazioari 2015eko urtarrilaren 31n bertan (16:43an), eta, era berean, esan zuten Ordizia klubaren arduradunekin harremanetan jartzen ahalegintzen ari zirela.

Era berean, Kirol Justiziako Euskal Batzorde honek eskainitako izapidean, aurreko azalpeni eusteaz gain, Eusko Jaurlaritzako Trafiko Kudeaketako buruak bideei buruzko egoeraz egindako ziurtagiri bat aurkeztu zuten; ziurtagirian, aipatu egunean Euskadiko bide-sare osoan bidaiarik ez egiteko gomendioa egiten zen, bidaiatzea guztiz ezinbestekoa izan ezean.

Ordizia klubak, bestalde, eta Getxo klubak egindako alegazioei dagokienez, honako hau dio: a) egun horretan, lehen mailako saskibalo-partida guztiak



jokatu ziren, eta Getxo izan zen maila horretan partida jokatzera joan ez zen talde bakarra; b) esandakoa gorabehera, ez zuten Getxo klubaren deirik jaso aipatu telefonoetan; c) kirol-klub bereko beste saskibaloit-talde batzuek, beste maila batzuetan, normaltasun osoz jokatu zituzten beren partidak; 2015eko urtarrilaren 31n, egun osoan, ez zen inolako zirkulazio-arazorik izan Euskadiko errepede nagusietan.

Bi klubek partida jokatzeko justifikazioaz edo justifikaziorik ezaz dauzkaten jarrerak azalduta, espediente osoa aztertuta eta inguruabar guztiak kontuan hartuta, batzorde honen ustez, behar bezain ongi arrazoituta eta justifikatuta dago Apelazio Batzordearen erabakia.

Izan ere, eztabaidagarria izan daiteke ondorioztatzea egoera oso larria zela edo izan zitekeela eta Getxo klubarentzat ezinezkoa zela partida jokatzera joatea edo Getxo klubak lehenago adierazi beharko zukeela ez zuela agertzeko asmorik, baina egitate objektibo batzuek klub horren erabakia babesten dute. Haien adierazgarri: Euskadiko saskibaloit-selektzioek bertan behera utzi zituzten entrenamenduak; Euskalmetek alerta laranja eta horia aipatu zituen; Ordiziako Udalak berak esandakoa; Getxo klubak Euskadiko Saskibaloit Federazioaren ordezkariet jakinarazi izana ez zutela asmorik partidara joateko eguraldiagatik.

Bestalde, beste ebazpen batzuetan esan dugun bezala, ezinezkoa da batzorde honek ez jakitea Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzietarako Aretorearen eta Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentzia finkatua –haiengatik guztiengatik Auzitegi Gorenak 1996ko apirilaren 17an emandako epaia (RJ 1996\3564)– dela zigor-arloan, eta kirol-diziplina haren barrukoa da, aplikagarriak direla, zenbait ñabardurarekin, zigor-zuzenbidean nagusi diren printzipioak, eta, haien artean “in dubio pro reo” eta “erruduntasun” printzipioak.



Eta, era berean, esan dugu diziplina-organoek esku hartzean kontuan hartu beharreko xedeetako bat lehiaketaren garapen normala ziurtatzea dela, horretarako “pro competicione” printzipioa aplikatuz, eta arrazoi horiek sobera ere bermatzen dute zuzenbidearen arabera dela Euskadiko Saskibaloia Federazioko Apelazio Batzardea 2015eko otsailaren 19an ebatzitakoa.

Horregatik guztiagatik, Kirol Justiziako Euskal Batzarde honek

### **ERABAKITZEN DU**

Ez onartzea Ordizia Kirol Elkartea-Saskibaloiak Kirol Justiziako Euskal Batzardeara helarazitako errekurtsua, aipatu federazioko Apelazio Batzardea 2015eko otsailaren 19an emandako 5 zenbakiko erabakiaren aurka jarritakoa. Horrenbestez, partida 2015eko apirilaren 15ean jokatuko da, Lehiaketa Batzardea adierazitakoaren arabera, partidaren gastuak Getxo klubaren kontura izanda.

Erabaki honek bide administratiboa agortzen du, eta aukerako berraztertze-helegitea jarri ahal izango da haren kontra, Kirol Justiziako Euskal Batzardearen aurrean, hilabeteko epean, jakinarazpen-egunaren biharamunetik zenbatzen hasita. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkeztu ahalko da Bilboko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpen-egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duenak, xedatutakoaren arabera, beti ere.

Gasteizen, 2015eko apirilaren 13an.

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA**

Kirol Justiziako Euskal Batzordea

**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA**

Kirol Justiziako Euskal Batzordea

José Ramón Mejías Vicandi

**KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEKO LEHENDAKARIA**